



1. eranskina

Gipuzkoako Haginlarien Elkargoaren Batzorde Deontologikoaren funtzionamendu-araudia pazienteen erreklamazioetarako

Erreklamazioa jarri duen pertsonarentzako informazioa

Erreklamazioa jarri duenak eman beharreko dokumentazioa:

- Elkargoaren inprimakia (hobe ordenagailu batekin beteta) helbide honetara: gerencia@coeg.eu. Eskuz ere bete daiteke, baina letrak garbiak izan behar dira.
- Erreklamazioaren arabera, beste dokumentu batzuk atxiki beharko zazkio, inprimakian adierazten den bezala
- Erreklamazio-egileak datuak lagatzeko baimena sinatu beharko du (ikusi 2. eranskina)

Idazkariak **tratamenduaren ardura izan duen profesional medikoaren txostena** eskatuko du.

Eskatutako dokumentazioa jasotakoan, idazkariak Batzorde Deontologikoko kideen artean **erreklamazioaren arduradun** bat izendatuko du, eta bildutako dokumentazio guztia bidaliko dio.

Arduradunak dokumentazioa aztertutakoan, **pazienteari Elkargoan hitzordua** emango zaio. Hitzordu horretan erreklamazioaren ardura duen Batzorde Deontologikoko kidea, Batzorde Deontologikoaren idazkaria eta pazientea egongo da. Arduradunaren irizpidearen arabera, Batzorde Deontologikoko kide gehiago izan daitezke, eta pazientea ere beste norbaitekin joan daiteke.

Batzorde Deontologikoaren arduraduna zalantzak argitzen saiatuko da eta eskuragarri duen informazioaren arabera, eta kode deontologikoaren arabera, egindako tratamendua baloratuko du. Kontratuzko ez betetzeak eta inplikazio ekonomikoak ez dira analizatuko. Beharrezkoa iritziz gero, pazienteari azterketa egin diezaioke, baina inolaz ere ez da izango peritatzea, haren eskumenetatik kanpo baitago hori.

Batzorde Deontologikoaren arduradunak erreklamaturako elkargokideari edo elkargokideei, edota erreklamaturako tratamenduarekin lotura izan duen beste profesional batzuei beste une batean hitzordua ematea egokia den baloratuko du.

Tratamenduaren alderdi deontologikoa aztertutakoan, Batzorde Deontologikoaren arduradunak eta idazkariak Batzordeko kideei deialdia egingo die eta **txosten deontologikoa** prestatuko dute. Txosten hori bi alderdiei bidaliko zaie. . Txosten horretan kode deontologikoaren arau-hausteren bat izan den zehaztuko da, eta zein diren **arrazoiak**. Txosten deontologiko horrek itxiko du pazientearentzako espedientea.

Bitartekaritza:

Erreklamazioa jarritako alderdiak eta erreklamaturako alderdiak adostasuna emanaz gero, **Elkargotik, inolako kosturik gabe, gatazkaren bitartekaritza egiteko zerbitzua** eskainiko da, gai zibil eta merkataritza-gaien bitartekaritzari buruzko 5/2012 Legean xedatutakoaren arabera. Bitartekaritza-taldeko idazkariak bideratuko du bitartekaritza, eta hark proposatu ahal izango du bitartekaritza-taldean beste pertsona batzuek parte hartzea.

2. eranskina

DATUEN LAGAPENA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoaren arabera, Elkargo honek erreklamazioa jarri duen pertsonari jakinarazten dio emango dizkigun izaera pertsonaleko datuak Elkargokidea titular den eskuzko edo informatizatutako fitxategi batean sartuko direla; fitxategi horren helburua Gipuzkoako lurraldean jokabideagatik odontologiako profesionalei izapidetzen zaizkien espediente deontologikoak kudeatzea da. Aipatutako datuak eman ezean, ezin izango da egindako erreklamazioa izapidetu.

Era berean, zuk aurkeztutako dokumentaziora sartzeko, hura zuzentzeko edo bertan behera uzteko eskubidea erabil dezakezula jakinarazten dizugu. Horretarako, Elkargoko egoitzara jo dezakezu: Zabaleta kalea, 40 – Behea – 20002 Donostia (Gipuzkoa).

Dokumentu hau sinatuta, interesdunak onespena ematen du emandako datuen eskuzko eta/edo informatizatutako tratamendua egiteko, baita erreklamazio honetan inplikaturako edozein alderdiri datu kliniko eta pertsonalak lagatzeko ere, elkargoetako beste estamentu batzuk, aseguru-konpainia eta zuzenean edo zeharka inplikaturako profesionalak barne, goian adierazitako helburuetarako, betiere.

Izen-abizenak:

NAN:

Sinadura

-n, 20 (e)ko ren (e)an.